



Begarako
Udala

BERGARAKO UDALA ETA MUSIKA ESKOLAREN ARTEKO HITZARMENA

Bergaran, bi mila eta hogeita hiruko martxoaren 24an

BILDU DIRA

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako behin-behineko alkatea, Bergarako Udalaren ordezkari izan da.

Bestetik, Pablo Ayerbe Mendicute jauna, Bergarako Musika Eskolako lehendakaria, Musika Eskolaren ordezkari izan da (IFZ: G20137931).

Pablo Ayerbe Mendicute jaunak, alkatearen aurrean adierazi ondoren berak ordezkari izan den elkarteak ez duela estatutuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 legeak aurreikusitako dirulaguntza jasotzeko debeku kasuetan, bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu elkarri eta honako hau:

ADIERAZI DUTE

1. Bergarako Musika Eskola irabazteko asmorik gabeko elkarte delako.
2. Bergarako Musika Eskolak urte askotan zehar Bergarako ume, gazte eta helduei musika eta kantua ikasteko aukera eman diela, eta horrela hornitu ahal izan direla herriko musika, talde eta abesbatzak; gainera herriko hainbat festa edo jaialditan parte hartzen duela eta horretan jarraitzeko asmoa duela.
3. Udalaren ustez, herritarrei zerbitzu hori eta hezkuntza musikala ematea onuragarria dela eta horregatik diru-laguntza eman izan duela eta orain ere emateko prest dagoela.
4. Musika Eskola elkarte pribatua izan arren eta erabiltzen duen eraikina ere pribatua izan arren, zerbitzu publikoa ematen dutela eta herri mailan oso ondo baloratzen dela. Horrez gain, herriko musika eskola bakarra dela.
5. 2023ko udal aurrekontua onartu dela eta Musika Eskolarekin 2022/2023 ikasturterako 219.176 euroko diru-laguntza sinatu dela. Diru-laguntza hori ohiko gastu arrunterako dela.
6. Bergarako Musika Eskolako eraikineko sarrerako zorua aldatu behar izan duela oso arriskutsu dagoelako eta inbertsio horri aurre egiteko ez ohiko dirulaguntza bat emateko eskaera egin diola Bergarako udalari.
7. Bergarako udalak erabaki duela Musika Eskolako sarrerako konponketa diruz laguntzea, udal eraikina izan ez arren, eraikinak erabilera publikoa eta handia duelako, eta, beraz, Alkateak 2023ko martxoaren 22an emandako dekretu batean onartu dela Musika Eskolak sarreran egin dituen konponketa lanen ordainketarako 30.000€-ko diru-laguntza ematea eta bi aldeek betebeharrak hitzarmen batean jasotzea.

Hori dela eta, ondorengo klausulak dituen hitzarmena hitzartu dute

KLAUSULAK

LEHENENGOA: Bergarako Udalak, Bergarako Musika Eskolari Musika Eskolako sarrerako zorua konpontzeko gastuei aurre egiteko 30.000€-ko diru-laguntza emateko konpromisoa hartzen du.



Bergarako
Udala

Dirulaguntza horren ordainketarako 3 hilabeteko epean Bergarako Musika Eskolak honakoak aurkeztu beharko ditu:

- Dirulaguntza ordaintzeko eskaera
- Egindako lanen memoria
- Egindako gastuen fakturen kopiak
- Helburu berarekin jasotako beste dirulaguntzen agiriak, jaso badira; eta horrelakorik jaso ez balitz, zinpeko aitorpena.

Halaber, Udalak ofizios egiaztatuko du Bergarako Udalarekiko ordainketak egunean dituela eta jarduera burutu ahal izateko Bergarako udalarekiko betebeharrak guztiak betetzen dituela.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunak:
 - Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantza:
 - Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean egotea.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.

BIGARRENA: Iraupena.

Hitzarmen hau indarrean egongo da sinatzen denetik kontatzen hasita eta dirulaguntza justifikatu arte. Dirulaguntza hau borondatezkoa da eta aurrerantzean ezin izango da aurrekarizat hartu.

HIRUGARRENA: Dirulaguntzak bateratzea.

Udalak emango duen dirulaguntzaz gain, helburu bera duen beste edozein dirulaguntza ere jaso daiteke. Hala ere, dirulaguntzak ezin izango du jardueraren kostua baino altuagoa izan.

LAUGARRENA: Dirulaguntza kopuruaren aldaketa.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu den baldintzetako bat aldatuko balitz, edo Udalaren dirulaguntzaz gain beste bat jasoko balitz, emandako kopurua alda daiteke.

BOSGARRENA: Dirulaguntzen kentzea.

Dirulaguntza berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, hauetakoren bat gertatuz gero:

- Eskolak betebeharrak ez betetzea.
- Dirulaguntza beste helburu baterako erabiltzea.



Bergarako
Udala

SEIGARRENA: Aurreikusita ez dagoena.

Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztirako, honako hauek aplikatuko dira: Dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa; lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; Bergarako udaleko dirulaguntzen ordenantza orokorra; eta Bergarako aurrekontuetako udal araua.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean bi aldeek hirukoiztuta sinatzen dute, Idazkariaren aurrean.

Bergarako alkatea

Gorka Artola Alberdi

**Bergarako Musika Eskolako
Lehendakaria**

Pablo Ayerbe Mendicutte

